

FUNTZESKO BALIABIDEAK

Harreman Estrategia: Bezeroekin Harremanak Eraikitzea eta Mantentzea

1. Zerbitzu Automatizatua (Webgunearen bidez):

Gure webgunean, bezeroek erosi ahal izango dituzte gure kosmetikoak etxetik atera gabe. Webgunean galdetegi bat izango dugu, non bezeroek azkar eta erraz egingo dituzten galderak. Horrela, behar izanez gero, informazioa jasoko dute edo produktuei buruzko zalantzak argituko dituzte.

2. Zerbitzu Pertsonalizatua:

- Chat live: Webgunean edo sare sozialetan, bezeroek gurekin zuzenean hitz egiteko aukera izango dute. Horrela, produktuak aukeratzen lagunduko diegu eta galderei erantzun pertsonalizatuak emango dizkiegu.

3. Komunitatea Sortzea:

Sare sozialetan komunitate bat sortuko dugu, non bezeroek gurekin eta elkarrekin ideia eta iritziak partekatu ahal izango dituzten. Horrela, gure bezeroek galdetegiak izango dute eta produktu berrietan zer gustatuko litzaiekeen jakin ahal izango dugu.

Zergatik?

- Erosoa: Webgunea erabiltzea eroso da, eta galderak egitea eta zalantzak argitzea oso erraza izango da bezeroentzat.
- Konfiantza: Bezeroak sentitzen dira lagunduta eta horrek konfiantza sortzen du.
- Komunitatea: Komunitateak bezeroak markaren parte sentiarazten ditu, eta horrek marka leialtasuna hobetzen du.

Helburua:

- Harreman erosoak eta hurbilak: Bezeroekin harreman estuak izatea, hau da, erosketak egiteko errazagoa izatea eta bezeroen konfiantza lortzea.
- Leialtasuna handitzea: Bezeroek gure markarekin leialtasun handiagoa izango dute.
- Diru-sarrerak handitzea: Bezero gehiago erakartzea eta euren leialtasuna lortzea diru-sarrerak handitzea ekarriko du.

Bezeroekin Harremanetan Mantentzea eta Hazi Araztea:

Harreman hurbilak eta pertsonalizatuak sortuko ditugu bezeroekin, eta sare sozialen eta chataren bidez, bezeroek gure markarekin konprometituak sentitzeko aukera izango dute. Komunitatea eta laguntza pertsonalizatuak bezeroen leialtasuna handituko dute.

- Harpidetza: Bezeroek produktu berriak eta berritasunak jakiteko aukera izango dute.
- Parte hartzea: Bezeroek parte hartu ahal izango dute eta markaren parte sentiaraziko ditugu.